

# ELKARRIZKETAK IRAKASLEEI

## Isabel Mendibil. Ingeleseko irakaslea



Isabel Mendibilek, Ikastola San Nikolasen 17 urte daraman irakaslea, Eleanitz proiektuak DBHn eduki duen garapena azaltzen digu. Proiektu hau ez da bakarrik ingeles irakasgaiaren oinarritzen, Gizarte Zientzietan ( Geografia DBH 3.mailan eta Historia DBH4. Mailan) ingelesez murgilketa osoa ematen du.

1- Noiz hasi zen Eleanitz proiektua DBHn? Eta ze abantaila ditu aurreko ingeles metodologiarekin alderatuta?

Gure lehen promozioa momentu honetan Batxilergo lehen mailan dago; beraz orain dela bost urte hasi zen. Esan beharra dago ikasle horiek ez zirela sartu Eleanitz proiektuan gaur egungo umeak bezala, HH 2. mailan. Haiek LH 6. mailan sartu ziren; beraz, oraindik ezin ditugu emaitzak guztiz baloratu; nahiz eta orain arte bene-benetan guztiz positiboak izan diren.

Oraingo ingelesean ahozkoa lantzen da gehiago. Irakasleek normaltasunez hartzen dute klaseak ingeles hutsez izatea, bai ingelesa irakasgai modura bai Gizarte Zientzia arloetan (Geografia eta Historia).

2- Proiektuaren helburuetariko bat gure ikasleek ingeles maila altuagoa lortzea izan zen. Betetzen ari da?

Nire ustez bai. Haien jakintza maila ez da hain gramatikala baina konpetenteagoak dira bai ahoz eta bai idatziz ere.

3- Proiektu honek berezitasun bat dakar. DBH bigarren zikloko Gizarte Zientzia arloa (Geografia eta Historia) ingelesez lantzen dela. Ze zailtasun topatu dituzue?

Ikasleak, hasiera batean, beldurtuta egoten dira pentsatuz; agian, azalpenak euskaraz askoz hobeto emango lituzketela. Gero, ostera, hizkuntza hainbesteko oztopoa ez dela konturatzen dira. Buruari asko eragiten diote zailtasunei aurre egiteko eta ni pozik nago alde horretatik.

Gizarte arloa lantzean ez diogu hainbeste begiratzen hizkuntza mailari. Gizarten ematen diren akatsak eta zalantzak Ingeles arloan konpontzen saiatzen gara, arlo biak guztiz lotuta daude eta.



## *Isabel Mendibil. Profesora de Inglés*

Isabel Mendibil, profesora que desde hace 17 años imparte clases en San Nikolas Ikastola, nos explica el desarrollo que ha tenido el proyecto plurilingüe "Eleanitz" en la ESO. Este proyecto en inglés, no sólo se basa en la asignatura de inglés sino también en su inmersión lingüística en Ciencias Sociales (Geografía en 3º de la ESO e Historia en 4º de la ESO).



**1- ¿Cuándo comenzó el proyecto plurilingüe en la ESO? ¿Y qué ventajas tiene comparando con la metodología anterior?**

Nuestra primera promoción está en este momento en Bachiller, es decir, hace cinco años. Es importante remarcar que aquel alumnado comenzó con el proyecto plurilingüe en sexto de Educación primaria, mientras hoy en día comienzan en segundo de Educación infantil. Por eso, todavía no podemos valorar los resultados del proyecto "Eleanitz" al 100% para las/los alumnas/os que no comenzaron desde el principio, aunque creemos que a pesar de ellos han sido positivos.

El inglés de hoy en día está enfocado, más bien, al uso oral. El alumnado toma con normalidad que las clases sean totalmente en inglés tanto en la asignatura de inglés como en la de Ciencias Sociales (Geografía e Historia).

**2- Uno de los objetivos es que nuestro alumnado logre un nivel más alto de inglés. ¿Se está cumpliendo?**

En mi opinión, sí. No es que tengan un nivel mayor en cuanto a gramática sino que son más competentes oralmente y por escrito.

**3- Este proyecto tiene una peculiaridad, que las asignaturas de Ciencias Sociales (Geografía e Historia) de segundo ciclo de la ESO se imparten en inglés. ¿Con qué dificultades os habéis encontrado?**

Al principio, las/os alumnas/os se asustan porque creen que las explicaciones las van a entender mejor en euskera. Luego, en cambio, se dan cuenta que el idioma no es un obstáculo. Yo, personalmente, estoy contenta porque le tienen que dar más vueltas a la cabeza para enfrentarse a las complicaciones que les puedan surgir.

Al trabajar las Ciencias Sociales no nos fijamos tanto en el nivel del idioma. Los errores y las dudas que surgen en estas asignaturas, las intentamos solucionar en la asignatura de inglés. Las dos áreas están unidas totalmente.



*4- Entzuna da, ikastolaren helburua Comeninus egitasmoan sartzea dela. Horren bitartez ikasle trukaketak egiten dira Europako beste herrialdeekin. Zer suposatuko luke ikastola-arentzat? Epe laburrera egitea posible dela uste duzu?*

*Idea bikaina. Beste herrialdeekiko harremanak oso garrantzitsuak dira eta komunikazio-hizkuntza ingelesa denez oso aberasgarria iruditzen zait. Ingelesaren benetako beharrezana ikusiko lukete ikasleek eta hau funtsezkoa da euren motibaziorako.*

### **Maiden Eguren. Frantseseko irakaslea**

*Maiden Egurenek, DBHn frantsesa ematen 3 urte daraman irakaslea, hizkuntza honek eduki duen bultzada azaltzen digu.*

*1- Ikastolara etorri zinenean, eleanitz proiektua frantseserako berria zen. Zenbat umek hartzen zuten frantsesa aukera moduan? Eta zenbat ikasle dituzu orain?*

*Lehenengo urte hartan, 20/25 ikasle izan nituen gutxi gora behera mailaren arabera, gaur egun, berriz, DBH 2. mailan 42 ikasle ditugu. Honela, frantseseko bi gela eta bi irakasle izatera heldu gara.*

*2- Zein izan da zure ustez holako hazkunde handiaren arrazoia?*

*Gaur egun, eleanitzeko proiektuaren barruan, frantsesa ERABILIZ irakasten da. Hau da, ikasarloekin lotura eginez eta ikasleei erronka kognitiboak proposatuz, hizkuntzarekin “gauzak” egitera bultzatzen ditugu, gramatika “zentzua duen zerbait egiteko” erabiltzen da eta erabili ahala, hizkuntzaz jabetzen dira.*

*Bestalde, frantses kulturarekin loturiko gaiak dira proiektuen muina eta frantseseko komunikazioan beharrezkoak diren harreman baliabideak eskaintzen dira.*

*Honez gain, lan egiteko modua aktiboagoa da eta komunikazio aukerak areagotu egiten dira.*





4- Se rumorea que el objetivo de la Ikastola es entrar dentro del programa Comenius. Este programa tiene por objeto el intercambio de alumnas/os con países del resto de Europa. ¿Qué supondría esto para la Ikastola? ¿Crees que sería posible a corto plazo?

Es una idea estupenda. Las relaciones con otros países son muy importantes y como la herramienta de comunicación es el inglés me parece muy enriquecedor. El alumnado vería la verdadera necesidad del inglés y esto es fundamental para su motivación.

### **Maiden Eguren. Profesora de Francés**

Maiden Eguren, profesora con una antigüedad de tres años en la Ikastola y que imparte clases de francés en la ESO, nos informa del impulso que ha cogido este idioma.

1- Cuando fuiste contratada en la Ikastola, el proyecto de plurilingüismo "Eleanitz" en francés era relativamente nuevo. ¿Cuántas/os alumnas/os elegían francés como optativa? ¿Y cuántas/os lo eligen hoy en día?

El primer año, contamos con alrededor de 20/25 alumnas/os en clase, dependiendo del nivel. Hoy en día, en cambio, solamente en el 2º ciclo de la ESO tenemos 42 alumnas/os. De esta manera, contamos con dos aulas y somos dos profesoras las que impartimos francés.

2- ¿Cuál crees que es el motivo de este crecimiento?

Hoy en día, con el proyecto de plurilingüismo que desarrollamos, se aprende el francés UTILIZÁNDOLO. Es decir, se les enseña a relacionar el idioma con diferentes áreas de aprendizaje

y se les proponen diversos retos cognitivos. Les inducimos a trabajar con el propio idioma y la gramática se utiliza para hacer algo que tiene sentido para ellas/os y a través del empleo de la misma, toman conciencia del idioma.

Por otra parte, la esencia de los proyectos la forman los temas que tienen relación con la cultura francesa y se ofrecen los recursos necesarios para la comunicación en francés.

Además, la forma de trabajar es más activa y la posibilidad de comunicación aumenta.





### *3- Zein da zure helburua ikasle batek DBH 4.maila bukatzen duenean?*

*Oinarrizko erabiltzaile maila (A2) lortzea. Hau da, frantziar kulturaren oinarriak ezagutzea (arte, historia, musika ...), frantziar kulturako ekoizpenak entzutea, irakurtzea eta ulertzea (pelikulak, komikiak, kanta, ...), bidaietan harreman eta zerbitzuetan erraz moldatzea (garraioak, jatetxeak ...) eta adin bereko lagunekin harremanak izatea.*

*Azken finean, ikasleek frantseseko lehenengo nozioak hartzea eta gogotsu aritzea, eta horrela, aurrerago frantsesa ikasten jarraitu nahi izanez gero, oinarri bat edukitzea.*

### *4- Jarraituko duzun bidea ...*

*Nire erronken artean bi hauek daude: frantseseko bloga berriztatzea eta Frantziako ikasle batzuekin harremanetan jartzea.*

*Frantseserako link a: [francais1415.blogspot.com](http://francais1415.blogspot.com)*

### **3 ¿Cuál es tu objetivo cuando un alumna/o termina 4º de la ESO?**

Obtener el nivel elemental A2. Es decir, que las/os alumnas/os conozcan la base de la cultura francesa (arte, historia, música...), que puedan entender, escuchar y leer sus producciones (películas, comics, canciones...), que en los viajes que hagan a Francia se puedan desenvolver con facilidad tanto en las relaciones personales como en los servicios (transporte, restaurantes...) y que puedan mantener relaciones con amigas /os de la misma edad.

Al fin y al cabo, el objetivo es que las/os alumnas/os obtengan las primeras nociones del idioma francés y que de esta manera, consigan un nivel básico por si quieren seguir estudiando este idioma más adelante.

### **4- Cuál es el camino a seguir a partir de ahora...**

Entre los retos que me planteo se encuentran los siguientes: renovar el blog de francés y ponerme en contacto con alumnas/os de Francia.

Link para el blog de francés: [francais1415.blogspot.com](http://francais1415.blogspot.com)